

Euroa oso gertu daukagu

Iñaki Erauskin Iurrita
Deustuko Unibertsitateko (ESTE, Donostia) irakaslea

Artikulu honek euro fiduziarioari buruzko gai nagusiak deskribatzen ditu. Euroaren trantsiziorako prozesuaren laburpen batekin hasten da. Ondoren euroaren oinarritzko lege-esparrua azaltzen du. Geroago zein txanpon eta billete mota erabiliko ditugun erakusten du. Azkenik, euro fiduziarioaren sarrera Espainian nola izango den azaltzen du: eurotan dauden txanpon eta billeteek pezetatan daudenak ordeztuko dituzte.

This article explains the main points regarding the introduction of the fiduciary euro. First, we summarize the transition process to the euro. Second, we describe the basic legal framework of the euro. Third, we show what kind of coins and banknotes in euros we are going to use. Finally, we focus on the process of introducing the fiduciary euro in Spain, which implies the substitution of coins and banknotes in pesetas for euros.

Eurotan dauden txanponak eta billeteak laster izango ditugu gure poltsikoan*. Horrek pezetatan dauden txanponak eta billeteak eurotan dauden txanponekin eta billeteekin trukatzeari ekarriko du, orain dela zenbait urte hasitako prozesua amaituz. Artikulu honek euroaren sarrerari buruzko gai nagusiak azalduko ditu: trantsizio-prozesua, euroaren oinarritzko lege-esparrua, eurotan dauden txanpon eta billete motak eta, azkenik, euro fiduziarioaren sarrera-prozesua Espainian.

1. Ekonomi eta Moneta Batasuneranzko trantsizioa

Europako integrazio-prozesua Belgikak, Frantziak, Italiak, Luxenburgok, Herbehereek eta Mendebaldeko Alemaniak ikatzaren eta Altzairuaren Europako Erkidegoa (IAEE) eratzekeo Ituna, edo Pariseko Ituna, 1951ko apirilaren 18an sinatzean hasi zen ofizialki. Bertan ikatz eta altzairurako merkatu komuna ezarri zen. IAEEk izandako arrakastak integrazio saiakerak bultzatu zituen beste sektoreetan: IAEE sortu zuten sei herrialdeek Europako Ekonomi Erkidegoa (EEE) eratzekeo Ituna, edo Erromako Ituna, sinatu zuten 1957ko martxoaren 25ean. EEEren helburu nagusia ondasunen, zerbitzuen, kapitalen eta langileen zirkulazio askea zuen merkatu komuna lortzea zen, hamabi urteko trantsizio-aldiaren ostean, eta horrekin batera politika bateratuak aurrera eramatea hainbat eremutan.

Halere, moneta-batasuna sortzea Europako Akta Bakarra (EAB, Erromako Itunaren lehenengo aldaketa handia) sinatzean, 1986ko otsailaren 17an eta 26an, sartzen da bere helburuen artean —lehenengo aldiz Erkidegoko Itunean—. Dena den, helburu hori ez zen berria. 1970eko maiatzean jada, Europako Ministroen Kontseiluak proposatuta, Pierre Werner (Luxenburgoko Gobernuko burua eta Ogasuneko ministroa garai hartan) buru zuen lan-taldeak, Ekonomi eta Moneta Batasuna (EMB) etapetan egiteko txostena aurkeztu zuen. Plan hori ez zen gauzatu orduko moneta-nahasmenduak eta Bretton Woodsek diseinatutako kanbio-tasen sistemaren porrota zirela eta. Geroago, 1979ko martxoan, Europako Moneta Sistema (EMS) ofizialki abian jarri zen. Bere helburua Erkidegoko estatu kideetako moneten artean zeuden kanbio-gorabeherak murriztea zen.

EABren elementurik garrantzitsuenak 1992ko abenduaren 31rako barne-merkatua (edo *Europako Merkatu Bakarra*) martxan jartzea zen: «barne-merkatua barne-mugarik gabeko esparrua da, eta horren barnean salgaien, pertsonen, zerbitzuen eta kapitalen zirkulazioa bermaturik dago». EMSk merkatu bakarria martxan jartzen lagundu zuen.

1988ko ekainean Kontseilu Europarrak lan-talde bati eskatu zion EMB sortzeko, eszenatokia zein izan zitekeen iker zezan. Lan-talde horren presidentea Jacques Delors zen, une horretan Europako Batzordeko presidentea. Lan-talde horrek prestatutako txostena, Delors txostena izenez ezagutzen dena, merkatu bakarria amaitzearen ondorio logikoa izan zen, eta merkatu bakar horren hurrengo etapa. Delors txostenak urratsez urrats egindako EMB proposatzen zuen nagusiki, ondokoetan oinarriturik: bateratasun-irizpide ekonomiko batzuk betetzea, eta EMB lortzeko egutegia eta marko juridikoa. Madrileko Kontseilu Europarrak, 1989ko

* Itziar Navarrori eskertzen diot artikulu hau euskaraz txukunago azaltzeko egin dizkidan hainbat iruzkin eta iradokizun baliotsuengatik, eta baita Patricia Canto, Juanjo Gibaja, Asier Minondo eta Mikel Navarrori ere euren aholku lagungarriengatik. Hala ere, okerrak edo hutsak nire ardura dira.

ekainean, txosten hori onartzea eta lehenengo etaparekin hastea erabaki zuen. Horretaz gainera, gobernuen arteko bilkura egiteko prestaketekin hastea erabaki zen, bigarren eta hirugarren etapak lan zitzaten. Bilkura horretako lanek, baita Europako Batasunaren itun berri baten oinarriak ezartzea helburu zuen beste bilkura bateko lanek ere, Maastricht-eko Ituna sinatzera eraman zuten 1992ko otsailaren 7an.

Maastricht-eko Itunak EMBrako trantsizio-prozesua hiru fasetan egituratu zuen:

1.1. Lehenengo fasea

1990eko uztailaren 1ean hasi eta 1993ko abenduaren 31n amaitu zen. Fase honetan, alde batetik, bateratasun ekonomikoan eman ziren pausoak (politika ekonomiko nazionalen koordinazio handiagoaren bitartez) eta, bestetik, barne-merkatuaren eraikuntza-prozesua aurreratu eta amaitu zen, artean merkataritzaren, kapitalen eta zerbitzu finantzieroen gainean zeuden oztopoak ezabatuz.

1.2. Bigarren fasea

1994ko urtarrilaren 1ean hasi eta 1998ko abenduaren 31n amaitu zen. Lehenik, Europako Moneta Institutua (EMI) sortu zen, egungo Europako Banku Zentralaren (EBZ) aitzindaria. Bere funtzioak mugatuak izan ziren: banku zentral nazionalen arteko moneta-lankidetzaren sendotzea, alde batetik; eta, bestetik, hirugarren fasearen hasieratik EBZk bere eginbeharrak egiteko behar zuen marko erregulatuak, antolatzaile eta logistikoa prestatzea nagusiki. Bigarren fase honetan bakarrik funtzionatu zuen EMIk. EMI EBZk ordeztu zuen 1998ko ekainaren 1ean, horrekin Banku Zentralen Europako Sistema (BZES) sortuz. 1998ko maiatzetik aurrera, EMBko hirugarren fasean parte hartuko zuten herrialdeak zeintzuk izango ziren jakin zen unetik, EBZ eta BZES 1999ko urtarrilaren 1etik aurrera diru-politika bakarraren barruan eragiketarik burutzen hasteko eman behar ziren pauso guztiak ematen aritu ziren.

Bigarrenik, defizit publikoak monetizatzea eta sektore publikoa finantzaketa pribilegiatuaz baliatzea debekatu zen.

Hirugarrenik, estatu kideek gobernuekiko banku zentral nazionalen independentzia ezarri zuten.

Laugarrenik, politika ekonomikoak koordinatzeko eta gainbegiratzeko tresna ezarri zen. Bere helburua inflaziorik eragingo ez zuen hazkundea eta estatu kideen arteko bateratasun-maila handia sustatzea zen.

1.3. Hirugarren fasea

Hirugarren fasea 1999ko urtarrilaren 1ean hasi zen eta EMBrako prozesua amaitu zuen. EMB benetan hirugarren fasean ezarri zen.

Lehenik, moneta berriaren, euroaren¹, eta EMBko hirugarren fasean sartzen ziren moneta nazionalen arteko bihurtze-tasa atzerazekin finkatu ziren. Bihurtze-tasa horiek aurrerago azalduko ditugu.

1. Euroaren izendapena Alemaniak proposatuta onartu zen Madrileko Kontseilu Europarrean.

Bigarrenik, Europako moneta bakarra, euroa, ezarri eta Eurosistema diru-politika bakarraren arduradun egin zen. Europako Batasuneko Itunak euroaren eremua osatzen duten herrialdeen diru-politikaren diseinua eta betearazte funtzioak BZESri ematen dizkio, eta EBZk eta banku zentral nazionalek egiten dituzte. Hala ere, BZESk bere eginkizun nagusiak aurrera eramateko erabiltzen duen organoa izendatzeko “Eurosistema” terminoa erabiltzea adostu zen. Eurosistema EBZ eta EMBko hirugarren fasean euroa erabiltzen duten estatu kideetako banku zentral nazionalek osatzen dute. Gaur egun hamabi banku zentral nazional daude Eurosisteman. Euroaren eremuan EBko hamabost estatu kideek parte hartzen dutenean bakarrik izango da “Eurosistema” terminoa BZESren sinonimoa. Horrela, BZES EBZk eta EBko herrialde guztietako banku zentral nazionalek osatzen dute.

EMBko hirugarren fase honetara igaro diren edo igaro nahi duten herrialdeek bateratasun-irizpide batzuk bete behar izan dituzte edo izango dituzte derrigorrez, bertara sartzea aztertzen den unean. Irizpide horiek honakoak dira:

1. Prezioen egonkortasuna: inflazio-tasa, Kontsumoko Prezio-Indize Harmonizatuaren urteko ehuneko aldakuntzan neurtua, ezin izango da inflazio-tasa baxuena duten hiru herrialdeen batez besteko inflazio-tasa baino puntu eta erdi handiagoa izan.
2. Epe luzeko interes-tasa ezin izango da inflazio-tasa baxuena duten hiru herrialdeen batez besteko interes-tasa baino bi puntu handiagoa izan.
3. Defizit publikoa ezin da BPGren %3 baino handiagoa izan.
4. Metatutako zor publikoa ezin da BPGren %60 baino handiagoa izan edo muga horretarantz nabarmen hurbiltzen joan behar du, gutxienez.
5. Kanbio-tasak EMSko kanbio-tasa mekanismoan aurreikusitako fluktuazio-marjina normalen barruan iraungo du, moneta-batasunean sartu aurreko bi urteetan, gutxienez. Aldi horretan ezin izango du Erkidegoko beste monetekiko inongo devaluaziorik jasan.

1998ko maiatzaren 2an bildutako Kontseilu Europarrak erabaki zuen zein herrialdek ezar dezakeen moneta bakarra hirugarren fasearen hasieratik. Erabaki hori hartzeko Kontseilu Europarra, Europako Parlamentuari alde aurretik aholkua eskatuz, Ekonomia eta Finantzetako Europako Ministroen Kontseiluaren (Ecofin) gomendioan oinarritu zen. Kontseilu honek, era berean, Batzordeak eta EMIk (bakoitzak bere aldetik) egindako ebaluazioek gidatuta erabaki zuen. Bi erakundeek 1998ko martxoaren bukaeran EMBn 11 estatu kide sartzea gomendatu zuten: Belgika, Alemania, Espainia, Frantzia, Irlanda, Italia, Luxenburgo, Herbehereak, Austria, Portugal eta Finlandia. Gainera adierazi zuten Greziak eta Suediak ez zituztela EMBn sartzeko beharrezko baldintzak betetzen. Kontseilu Europarrak gomendio hori berretsi zuen. Bestalde, Danimarkak eta Erresuma Batuak “opting out” klausula erabili zuten EMBn ez sartzeko². Azkenik, nahiz eta Greziak irizpide bat bera ere ez bete une horretan, bere egoera nabarmen hobetu zenez, hirugarren fasera igartzeko eskatu zuen 2000. urtean. Greziak moneta bakarra

2. Bi herrialde horiek bakarrik dute klausula hori. Horren bitartez, EMBko hirugarren fase (euroa ezartzen den fasea) aldebakarki kanpo geratzeko aukera dute.

hartu zuen 2001eko urtarrilaren 1ean. Beraz, hiru dira EMBko hirugarren fasean sartu ez diren EBko herrialdeak gaur arte.

Azkenik, 1995eko abenduan bildutako Kontseilu Europarrak erabaki zuen, hirugarren eta azken fase honen barnean, moneta bakarra hiru etapatan ezarriko dela:

- Etapa iragankorra, 1999-1-1etik 2001-12-31ra. Etapa honetan moneta nazionalak (pezeta, libera...) erabiltzen jarraitzen da kobrantza eta ordainketa fisikoak egiteko. Euroa finantza eta merkataritza-eragiketak izendatzeko barririk erabil daiteke, baina eragiketa hauen ondorioz sortutako kobrantzak eta ordainketak egiteko eurotan dauden kantitateak moneta nazionaletara bihurtu beharko dira.
- Zirkulazio bikoitzeko etapa, 2002-1-1etik 2002-2-28ra, gehienez³. Zirkulazioan sartzen dira eurotan dauden txanponak eta billeteak. Euroak moneta nazionalekin aldi berean egongo dira edozein motatako kobrantza eta ordainketetarako. Euroa eta moneta nazionalak legezko erabilerakoak izango dira aldi honetan zehar.
- Moneta-batasunaren amaiera, 2002-3-1etik aurrera, gehienez. Euroa izango da EMBren hirugarren fasean sartu diren herrialdeetan egongo den legezko erabilerako moneta bakarra. Moneta eta billete nazionalak ez dira legezko erabilerakoak izango eta zirkulaziotik desagertuko dira.

2. Euroaren oinarrizko esparru juridikoa

Euroaren sarreraren lege nagusia Batasuneko Kontseiluaren bi Erregelamendu eta Espainiako Lege bat dira. Bi Erregelamenduak: Kontseiluaren Erregelamendua (EE) 1103/97, 1997ko ekainaren 17koa, «euroaren sarreraren inguruko xedapen jakin batzuei buruzkoa»; eta Kontseiluaren Erregelamendua (EE) 974/98, 1998ko maiatzaren 3koa, «euroaren sarrerari buruzkoa». Bestea Espainiako 46/1998 Legea da, 1998ko abenduaren 17koa, «euroaren sarrerari buruzkoa» (*ley parasguas* ezizenaz ezaguna). Ondoren azalduko ditugu euroaren esparru juridikoaren oinarrizko atalak, 1999ko urtarrilaren 1etik aurrera indarrean daudenak.

Lehenik, edozein kontratutan ecu-ari (Europako Kontu Unitatea edo *European Currency Unit*) egindako erreferentzia guztiak euroari egindako erreferentzia bihurtuko dira. Euro bat ecu baten berdina da. Ecu bere garaian Erkidegoa osatzen zuten herrialdeetako moneten otarrea zen. Ecuaren balioa moneta horien balioak gehituz lortzen zen, balio horiek herrialde bakoitzaren garrantzia erakusten zuen faktore batez haztatu ondoren.

Bigarrenik, kontratuen jarraitasunaren printzipioa ezartzen da. Horren arabera, «euroaren sarrerak ez du tresna juridikoetako terminoetan inongo aldaketarik ekarriko, ezta haietan ezarritakoa betetzea salbuetsiko ere, eta ez die alderdiei aldebakarki aldatzeko edo amaitutzat jotzeko gaitasunik emango» (lehenengo

3. Hasieran, zirkulazio bikoitzerako ezarritako epemuga 2002ko ekainaren 30a izan zen. Halere, ondoren azalduko den bezala, zirkulazio bikoitzeko etapak gutxienez 4 aste izango ditu eta gehienez 2 hilabete.

Erregelamenduaren 3. artikulua). Horrela, moneta nazionalen ordeztuak euroa ezartzen denean, zenbatekoak moneta nazionaletan adierazita dituzten kontratuak eurora bihurtuko dira ezarritako bihurtze-tasan.

Hirugarrenik, bihurtzeko eta biribiltzeko arauak ezarri dira bai aldi iragankorre-rako baita hori amaitu eta gerorako ere. Bihurtze-tasek, finkoak eta atzeraezinak, euro bat lortzeko zenbat moneta-unitate nazional behar diren adierazten dute, sei zifra adierazgarri dituzte eta ezin dira ez biribildu, ezta moztu ere. Bihurtze-tasak, 1. taulan azaltzen direnak⁴, «euro unitatearen eta moneta-unitate nazionalen artean bi zentzuetako bihurtetako egiteko» erabili behar dira (lehenengo Erregelamenduaren 4. artikulua).


1. Taula. Bihurtze-tasak

Monetak	euro 1 =
Libera belgikarra (BEF)	40,3399
Marko alemana (DEM)	1,95583
Drakma grekoa (GRD)	340,750
Pezeteta espainiarra (ESP)	166,386
Libera frantsesa (FRF)	6,55957
Libra irlandarra (IEP)	0,787564
Lira italiarra (ITL)	1936,27
Libera luxenburgotarra (LUF)	40,3399
Florin holandarra (NLG)	2,20371
Txelin austriarra (ATS)	13,7603
Ezkutu portugaldarra (PTE)	200,482
Marko finlandiarra (FIM)	5,94573

Iturria: Europako Batzordea.

Horrela, pezetatan dagoen zenbateko bat eurotan dagoen zenbatekora bihurtzeko, pezetatan dagoen zenbatekoa bihurtze-tasaz zatitu behar dugu, gure kasuan $166,386$. Adibidez, eurotara bihurtu nahi badugu 5.000 pezetako prezioa duen ondasuna, $5.000/166,386=30,0506\dots$ izango dugu. Moneta nazionalen dagoen zenbateko bat eurotara bihurtzean eurotan dagoen zenbatekoa biribildu behar dugu, hurbilen dagoen zentimora: hirugarren hamarrena 0 eta 4 bitartean badago, beheko zentimora biribiltzen da; goiko zentimora hirugarren hamarrena 5 eta 9 artean badago. Gure adibidean prezioa behera biribildu behar dugu: ondasun horren prezioa $30,05$ da.


4. Euroaren balioa ecu batek 1998ko abenduaren 31n zuen balioaren berdina da.



Prozedura bera jarraituz, pezetatan dagoen edozein zenbateko euroara bihur dezakegu. Erreferentzi gisa zenbait prezio adieraz ditzakegu:

100 pezeta	=	0,60 euro
500 pezeta	=	3,01 euro
1.000 pezeta	=	6,01 euro
5.000 pezeta	=	30,05 euro
10.000 pezeta	=	60,10 euro

Bestalde, eurotan dagoen zenbateko bat pezetatan dagoen zenbateko bihurtzeko alderantzizkoa egin behar dugu, hau da, eurotan dagoen zenbatekoa bider 166,386. Adibidez, pezetatara bihurtu nahi badugu 6 balio duen ondasun baten prezioa, $6 \times 166,386 = 998,316$ pezeta izango dugu. Eurotan dagoen zenbatekoa pezetatan dagoen zenbateko bihurtu nahi badugu, lortutako zifra hurbilen dagoen pezetara biribildu behar dugu: lehenengo hamarrena 0 eta 4 artean badago, beheko pezetara biribiltzen da; goiko pezetara lehenengo hamarrena 5 eta 9 artean badago. Adibide honetan prezioa behera biribildu behar da: ondasun horren prezioa 998 pezeta da.



Hasieran behintzat, gure erosahalmena ez dela aldatuko ere adierazi behar dugu: aldatuko den gauza bakarra gure prezioen eskala izango da. Halere, pezetatan dauden zenbatekoak eurotan dauden zenbateko bihurtzean prezioak

igotzeko arriskua dago, legeetan ezarritako bihurtze- eta biribiltze-arauei jaramonik egin gabe. Arreta handia jarri beharko dugu hori gerta ez dadin.


Laugarrenik, 1999ko urtarrilaren 1etik aurrera, EMBko hirugarren fasean sartu garen herrialdeen moneta euroa da. Moneta-unitatea euro bat da. Euro bat ehun zentimotan (edo *cent*) banatzen da.

Bosgarrenik, euroaren eta moneta-unitate nazionalen arteko legezko balio-kidetasunaren printzipioak adierazten du, aldi iragankorrean, euroa eta moneta nazionalak batera dauden bitartean, moneta-unitate nazionaletan dagoen moneta-kantitate bakoitzari kontrabalo finko bat ezarriko zaiola eurotan, bihurtze-tasa erabiliz. Eta alderantziz ere egin daiteke.

Seigarrenik eta azkenik, "betebeharrik ez, debekurik ez" printzipioak, euroaren eta moneta-unitate nazionalen erabileraren inguruan honakoa dio: aldi iragankorrean agente ekonomiko pribatuek euroa erabili nahi badute erabil dezaketela, baina ez dela derrigorrezkoa izango. Beraz, nahi izanez gero, era guztietako eragiketak eta kontratuak egin daitezke izendapen nazionalekin.

3. Eurotan dauden txanponak eta billeteak

Euroko 8 txanpon daude: 1, 2, 5, 10, 20 eta 50 zentimokoak eta 1 eta 2 eurokoak. Txanponen tamaina eta pisua desberdinak dira eta balio faziaren proportzioan doaz. Ondoko koadroan azaltzen dira txanpon desberdinak. Txanponen aurrealdea berdina da herrialde guztietan eta ondoko elementuak izango ditu: Europako Batasunaren mapa zeharkako lerrodun hondoren gainean, eta horri loturik egongo dira 12 izarrak eta euroaren izendapena karaktere latindar eta grekoetan. Txanponen atzealdea desberdina da herrialde bakoitzean. Espainiako txanponetan, 1 eta 2 euroko txanponen atzealdean Juan Carlos I.a erregea dago; 10, 20 eta 50 zentimoko txanponetan Miguel de Cervantes; eta 1, 2 eta 5





Iturria:
Europako Banku Zentrala

zentimoko txanponetan, Compostelako Santiagoko katedrala. Txanponak euroaren eremuko 12 estatu kideetako edozein lekutan erabili ahal izango dira, daramaten irudia edozein izanda ere.

Euroko 7 billete daude. Euroko billeteak 5, 10, 20, 50, 100, 200 eta 500 eurokoak izango dira. Billeteen tamaina euren balio faziaren proportziokoa izango da, eta, txanponak ez bezala, berdinak izango dira Erkidego osoan. Billeteak ondoko koadroan azaltzen dira, eta, ondoko elementuak daramatzate: euro izendapena karaktere latindarretan eta grekoetan, Europako Batasuneko bandera aurrealdean, jaulkitzailearen izena (EBZren inzialak 11 hizkuntza ofizialetan, 5





Iturria:
Europako Banku Zentrala

konbinazio osatuz), EBZko presidentearen sinadura eta diseinu jakin bat. Billeteen diseinua “Europako garai eta estiloak” gaian oinarritzen da eta Europako historia kulturalerako zazpi garaietako estilo arkitektonikoak islatzen ditu. Leihoak eta atak dira billeteen aurrealdeko irudi nagusiak eta zubiak atzealdekoak. Billeteek euroaren zonako 12 estatu kideetako edozein lekutan legezko erabilera izango dute.

Azkenik, aipatzea merezi du euroaren zeinu grafikoa zein den: E bat da, bi lerro paralelo horizontalek gurutzatzen dutelarik, ondoko irudian azaltzen den bezala. Epsilon hizki grekoan inspiraturik dago, Europako zibilizazioaren sorterriari eta “Europa” hitzaren inzialari erreferentzia eginez.



Iturria: Europako Batzordea

4. Pezetak eurotara trukatzeari Espainian

Espainiako gobernuak, euroaren sarrerarako Ministerioen arteko Batzordearen bitartez, plan bat ezarri du, *II Plan nacional de transición al euro: el canje de pesetas por euros*, euroaren sarrerarako azken zatirako erreferentzia⁵. Plan hori Ministroen Kontseiluak onartu zuen 2000ko irailaren 1ean. Ondoren azaltzen dena plan horretan oinarritzen da nagusiki.

Bi ardatz nagusi daude euro fiduziarioaren sarreran:

1. 2002ko urtarrilaren lehenengo hamabostaldian, eurotan dauden txanponen eta billeteen masa kritikoa zirkulazioan jartzea, esku-dirutan egindako eragiketa gehienak eurotan egin daitezzen.
2. Pezetatan dagoen diru fiduziarioa erretiratzea eurotan dauden txanponak eta billeteak erabiltzen diren heinean.

Bi ardatz horiek hiru etapatan eramango dira aurrera.

4.1. Aldez aurretiko banaketako etapa (2001eko abenduaren 31ra arte)

4.1.1. Eurotan dauden txanpon eta billeteen ekoizpena eta logistika

Euroaren eremuko herrialdeek eurotan dauden ekoitzi beharreko txanponen kopurua izugarria da: 49.800 milioi txanpon, horien balio nominala 15.585 milioi euro delarik (2,6 bilioi pezeta, gutxi gorabehera). 2. Taulak adierazten du zenbat ekoitzi behar dituen herrialde bakoitzak. 3. Taulak azaltzen du Espainiak ekoitzi behar duen txanpon kopurua balio faziial bakoitzeko, 7.800 milioi txanpon⁶, guztira 1.952 milioi euroko balioa dutenak (325.000 milioi pezeta, gutxi gorabehera).

Txanponen banaketa handienetik txikienera mailakatutako prozesua izaten ari da. Lehenik, ekoizpena biltegi orokor batean bildu; gero, garraiatu eta probintzietako bulegoetan bildu; azkenik, segurtasun-enpresak kreditu-erakundeei eta merkataritza-banaketa handiari aldez aurretik banatzen ari dira, 2001eko irailaren 1etik aurrera. Modu horretan euroen %40a baino zerbait gehiago bideratuko da. Gainerakoa biltegi orokorrean egongo da 2002ko urtarrilaren 1etik aurrera banatzeko.

Txanponen ekoizpenean eta aldez aurretiko banaketan arreta berezia eskaini behar diogu txanpon-paketeen edo eurodiruzorroren (edo *starter kit*) ekoizpenari. Horiek abenduko bigarren hamabostalditik aurrera bideratuko dira jendearengana. Gehienez 30 milioi pakete ekoitziko dira, horietako bakoitzean eurotan 43 txanpon izango dira, 2.000 pezeta edo 12,02 euro balio dutenak. Beren osaketa 4. Taulan azaltzen da. Txanpon-pakete horiek kreditu-erakundeei pezetatik eurorako trukea erraztuko diete eta jendea txanpon berriekin ohitzea ahalbidetuko dute. Horrek posible egingo du 2002ko urtarrilaren 1etik aurrera txanpon berriak zirkulazioan jartzea.

5. Plan hau 1997ko "Plan nacional para la transición al euro en España"-ren jarraipena da. Espainiak eurorako trantsizioa nola egin behar duen azaltzen du. Plan hori Ministroen Kontseiluak onartu zuen 1997ko abenduaren 19an.

6. Begi bistakoa da ez dutela bat egiten Espainian ekoiztako txanpon kopuruaren datuek, batetik, EBZk emandako datuak eta, bestetik, euroaren trantsiziorako II Plan nazionalak.

2. Taula. Txanponen ekoizpena euroaren eremuan

HERRIA	TXANPON KOPURUA MILIOITAN
Belgika	2.000
Alemania	17.000
Grezia	1.300
Espainia	7.100
Frantzia	7.500
Irlanda	900
Italia	7.200
Luxenburgo	100
Herbehereak	2.800
Austria	1.500
Portugal	1.300
Finlandia	1.100
GUZTIRA	49.800

Iturria: Europako Banku Zentrala

3. Taula. Txanponen ekoizpena Espainian

Balio faziala	Txanpon kopurua milioitan	Balioa milioi eurotan
zentimo 1 euro	900	9
2 zentimo euro	1.650	33
5 zentimo euro	1.200	60
10 zentimo euro	1.000	100
20 zentimo euro	1.000	200
50 zentimo euro	1.400	700
euro 1	450	450
2 euro	200	400
GUZTIRA	7.800	1.952

Iturria: Euroaren sarrerarako Ministerioen arteko Batzordea (2000).

4. Taula. Txanpon-pakete edo eurodiruzorroaren (edo *starter kit*) osaketa eta xehetasuna

Balio faziala	Pieza kopurua	Balioa eurotan
zentimo 1 euro	4	0,04
2 zentimo euro	9	0,18
5 zentimo euro	6	0,30
10 zentimo euro	6	0,60
20 zentimo euro	7	1,40
50 zentimo euro	7	3,50
euro 1	2	2,00
2 euro	2	4,00
GUZTIRA	43	12,02

Iturria: Euroaren sarrerarako Ministerioen arteko Batzordea (2000).

Euroen billeteen ekoizpena, txanponen antzera, izugarria izango da. Euroaren eremuan 14.500 milioi billete baino zerbait gehiago ekoitziko da, guztira 648.465 milioi euro (108 bilioi pezeta, gutxi gorabehera). 5. Taulan adierazten da zenbat billete ekoitziko dituen herri bakoitzak. Espainiak 1.924 milioi billete ekoitziko ditu guztira. 6. Taulak azaltzen du Espainian balio fazial bakoitzeko guztira ekoitzitako billeteen kopurua. Horrek guztira 68.450 milioi euroko balio faziala adierazten du (11,4 bilioi pezeta, gutxi gorabehera).

5. Taula. Billeteen ekoizpena euroaren eremuan

HERRIA	BILLETE KOPURUA MILIOITAN
Belgika	530
Alemania	4.342
Grezia	581
Espainia	1.924
Frantzia	2.570
Irlanda	243
Italia	2.830
Luxenburgo	46
Herbehereak	655
Austria	520
Portugal	535
Finlandia	219
GUZTIRA	14.545

Iturria: Europako Banku Zentrala.

6. Taula. Billeteen ekoizpena Espainian

Izendapena eurotan	Billete kopurua milioitan	Balioa milioi eurotan
5	310	1.550
10	281	2.810
20	547	10.940
50	655	32.750
100	103	10.300
200	13	2.600
500	15	7.500
GUZTIRA	1.924	68.450

Iturria: Euroaren sarrerarako Ministerioen arteko Batzordea (2000).

Euroen billeteen banaketa eta txanponena berdintsuak izango dira. Lehenik, billeteak Espainiako Bankuaren bulegoetan bildu; ondoren, segurtasun-enpresek billeteak kreditu-erakundeen bulegoetara eta horrela eskatzen duten merkataritza-banaketa zentru handietara garraiatu eta aldez aurretik banatzen ari dira, 2001eko irailaren 1etik aurrera.

4.1.2. Mailakako aldez aurretiko banaketa

Euroaren sarrerarako helburua eurotan dauden txanponen eta billeteen masa kritikoa 2002ko urtarrileko lehenengo hamabostaldian zirkulazioan jartzea da, esku-dirutan egindako eragiketa gehienak moneta berrian egitea posible izan dadin. Horretarako, 2001. urteko azken hilabeteetan euroen kantitate nahikoa aldez aurretik banatzea beharrezkoa izango da:

- Lehenengo maila: segurtasun eta fondo-garraioen enpresek txanpon-kopuru nahikoa behar izango dute kreditu-erakundeei eta merkataritza-banaketa handiari aldez aurretik txanpon kopuru nahikoa banatzeko, 2001eko irailaren 1etik aurrera. Billeteekin gauza bera egingo da geroago. Txanponen pisuak eta zenbatekoak aldez aurretiko banaketa billeteena baino lehenago egitea eskatzen du.
- Bigarren maila: kreditu-erakundeek txanponak eta billeteak aldez aurretik banatuko dituzte 2001eko abenduaren 1etik aurrera merkataritza txikiari (ez dago pakete estandarrik) eta 2001eko abenduko bigarren hamabostalditik aurrera jendeari orokorrean (txanpon-paketeen bitartez).

Euro horien aldez aurretiko banaketak ez du adierazi nahi zirkulazioan jarriko direnik. Ez dira, beraz, legezko erabilerarako bide izango 2002ko urtarrilaren 1era arte.

4.1.3. Makina saltzaile automatikoak egokitzea

Makina saltzaile automatikoak aurrerapen nahikoarekin egokitu beharko dira, 2002ko urtarrilaren 1etik aurrera salerosketak eurotan egin ahal izateko.

4.1.4. Arazoak izan ditzaketan biztanleei arreta berezia

Arazoak izan ditzaketan biztanleentzat (itsuak, ezindu fisikoak edo mentalak...) aldaketan ondorioei arreta berezia emango zaie: entrenamendu eta informazio-paketeak, alde batetik bakarrik eta "baliorik gabe" hitzak inprimatuta dituzten billeteak eta abar.

4.2. Zirkulazio bikoitzeko etapa (2002ko urtarrilaren 1etik otsailaren 28ra)

Nahiz eta hasieran dirua (euroa eta moneta nazionalak) fisikoki aldi berean zirkulatzeko gehieneko epea sei hilabetekoa ezarri (2002ko urtarrilaren 1etik 2002ko ekainaren 30era), Batasuneko Kontseiluak erabaki zuen epe horrek gutxienez 4 aste izango zituela eta gehienez 2 hilabete. Espainian, euroaren eremuko gainerako herrialde gehienetan bezala, txanpon eta billete nazionalak legezko ordainbidea izateari otsailaren 28an utziko diote⁷. Halere, trukatzeko balioari eutsi egingo diote egun hori igaro eta gero, behean ikusiko den bezala.

Arazoi horregatik, eurotan dauden txanponak eta billeteak aldezturik banatzeak aurtengo azken hilabeteetan, 2002ko urtarrilaren 1a baino lehenago, garrantzi askoz ere handiagoa hartzen du: kreditu-erakundeei, merkataritza-banaketa handiari, merkataritza txikiari eta ostalaritzari aldezturik banatu behar zaie, eurodiruzorroekin batera. Helburua 2002ko urtarileko lehenengo hamabostalditik aurrera eragiketetan euroen masa kritikoa erabiltzea da. Horretarako kreditu-erakundeek eta Espainiako Bankuak ez dituzte pezetak emango euroen truke: eurotan dauden txanponak eta billeteak banatuko dituzte soilik.

Kutxazain automatiko gehienek eurotan bakarrik dauden billeteak banatu behar dituzte 2002ko urtarrilaren 1etik aurrera. Horrela, 2002ko urtarrilaren 15etik aurrera kutxazain guztiek eurotan dauden billeteak bakarrik banatzea lortu nahi da.

Merkataritzak eta kontsumitzaileek egundoko garrantzia izango dute euroaren sarreran eta erretiratzean, sortutako eragozpenak ahalik eta txikienak izan daitezzen. Hortaz, merkatariek, ahal den neurrian, kanbioak eurotan bueltatuko dizkiete bezeroei.

4.3. Erretiratze eta trukatzeko etapa (2002ko urtarrilaren 1etik aurrera)

Pezetatan dauden txanponak eta billeteak 2002ko urtarrilaren 1etik aurrera hasiko dira erretiratzen, euroak zirkulatu hasten direnean. Haien Espainiako Bankura eta Fábrica Nacional de Moneda y Timbre-ra eramango dira. Erretiratze-prozesua euroekin gertatuko denaren alderantzizkoa izango da.

Pezetak 2002ko otsailaren 28an utziko dio legezko erabilerakoa izateari. Halere, euro eta pezeta aldi berean erabiltzeko epea bi hilabetera murrizteak ez du pezetak eurotara trukatzeko epearen murrizketa ekarriko, kreditu-erakundeetan itogunerik ez gertatzeko eta jendeari orokorrean moneta berrirako aldaketa erraz-

7. Bestalde, txanponen eta billete nazionalen legezko erabilera 2001eko abenduaren 31n amaitzen da Alemanian (enpresek marko alemanetan dauden txanponak eta billeteak onartuko dituzte, halere, 2002ko otsailaren 28ra arte, gutxienez), 2002ko otsailaren 17an Frantzian, 2002ko otsailaren 9an Irlandan eta 2002ko urtarrilaren 28an Herbehereetan.

teko. Horrela, pezetatan dauden txanponak eta billeteak Espainiako Bankuan, bankuetan, aurrezki-kutxetan eta kreditu-kooperatibetan trukatu ahal izango dira dohainik 2002ko ekainaren 30era arte. Gainera, pezetatan dauden txanponak eta billeteak euro tara truka daitezke dohainik Espainiako Bankuan eperik gabe.

Azkenik, euroari buruzko informazio gehiago lortu nahi duenak ondoko webguneetara jo dezake:

- Europako Banku Zentrala: www.euro.ecb.int
- Europako Batzordea: europa.eu.int/euro
- Espainiako Ekonomia Ministerioa: www.euro.mineco.es
- Espainiako Bankua: www.bde.es

Bibliografia

Banco Central Europeo. Zenbait liburuxka.

Banco de España (1997): *La Unión Monetaria Europea. Cuestiones fundamentales*, Banco de España, Madril.

Comisión interministerial para la introducción del euro (1997): *Plan nacional para la transición al euro*, Madril.

Comisión interministerial para la introducción del euro (2000). *II Plan nacional de transición al euro: el canje de pesetas por euros*, Madril.

Silguy, Yves-Thibault De (1998): *El euro. Historia de una idea*, Planeta, Bartzelona.

Sociedad para la Promoción y Reconversión Industrial (1999): *La implantación del euro en la gestión empresarial*.